



ARABAKO ESI

Lehen Mailako Farmazia / Farmacia Atención Primaria

ESI ARABA: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2022ko Ekaina	
MONKEYPOX Protokoloa eguneratu da	1 Irakurtzen jarraitu
HILABETEKO BERRIKUNTZAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN 2022ko maiatzeko berriak	2 Irakurtzen jarraitu
COVID-19: EGUNERATZEA SARS-CoV-2 protokoloa eguneratu da COVID-19aren aurkako txertoei buruzko 15. Farmakozaintza txostena argitaratu da	3 Irakurtzen jarraitu
HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARTZEAK Maiatzeko hornidura-gabezia eta -berrezartze esanguratsuenak	4 Irakurtzen jarraitu
BERRIKUNTZAK PRESBIDEN Alerten eta alergiaen modulua aktibatu da Osabide Globalen Aldaketak Presbideren formula magistraletan	5 Irakurtzen jarraitu
ARGITALPEN INTERESGARRIAK INFAC: “Sarnaren tratamendua” i-botika fitxa berria: “Kolesterol maila ez da faktore bakarra” Sendagaiak zentzuz erabiltzeko gomendioak: “D bitamina helduengan” PPIak luzaroan erabiltzea eta diabetesa izateko arriskua	6 Irakurtzen jarraitu
LMAF ETA MEDIKAZIOA BERRIKUSTEA: ARRISKU HANDIKO MEDIKAMENTUAK Antikoagulatzaileen bikoiztasuna	7 Irakurtzen jarraitu

1	MONKEYPOX
Europako hainbat herrialdetan gertatutako tximinoaren baztangaren (<i>monkeypox</i>) azken agerraldiaren ondorioz, Euskadira ere heldu denez gero, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egokitu egin du zaintza epidemiologikoko sare nazionalaren (RENAVE) protokoloa. Azken eguneratzea 2022ko ekainaren 3an zabaldu zen. Protokolorako sarbidea hemen	
HASIERARA itzuli	

2

HILABETEKO BERRIKUNTZAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN
MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira 2022ko maiatzeko nobedadeak:

Mayo 2022		
	Koltxizina	Colchicina® SEID 0,5 mg pilulak. Indikazioa zabaltzea: perikarditis akutuaren perikarditis errepikariaren tratamendua helduetan, azido azetilsalizilikoarekin beste AINE batzuekin konbinatuta
	Indikazioa zabaltzea, finantzatzea edo preskripzio- eta banaketa-baldintzak	

2020ko urtarritetik 2022ko maiatzera arteko berrikuntzak jasotzen dituen txostenera sartzeko, egin klik [hemen](#)

[HASIERARA itzuli](#)

3

COVID-19: EGUNERATZEA

SARS-CoV-2 protokoloa eguneratzea: ekainaren 8an, protokoloa eguneratua argitaratu da, eta hemen kontsulta daiteke. Aurreko bertsioarekiko aldaketak: eremu kalteberetako langileen lanera bueltatzeko baldintzak aldatu dira (13-15 or.). Infekzioa baieztatua duen langile sozio-sanitarioa ez da bere lantokira joango sintomak hasi eta lehen 5 egunetan (sintomarik gabeko pertsonen kasuan, lagina hartzearen datatik zenbatuta). Denbora hori igaro eta sintomak desagertu zirenetik 24 ordu igaro badira, egoiliarrekin zuzeneko harremana duten langileei Ag proba egingo zaie, eta emaitza negatiboa bada, bere lantokira itzuli ahal izango da. Nolanahi ere, sintomak hasten direnetik zazpigarren egunetik aurrera edo sintomarik gabeko pertsonen kasuan proba positiboa egiten denetik zazpigarren egunetik aurrera, langilea sintomarik gabe edo hondar-sintomekin badago, bere lanpostuan sartu ahal izango da, beharrezkoak diren prebentzio-neurriak erabiliz. Gainerako langileak bosgarren egunetik aurrera hasi ahal izango dira lanean, sintomak desagertu badira.

Alde baterako ezintasuna egiterakoan kontutan eduki beharrekoak hurrengo irudian laburbiltzen dira:



COVID-19aren aurkako txertoen 15. Farmakozaintza txostena: txosten honetan, txerto hauei lotutako segurtasun gaien inguruko informazioa eguneratu da:

Comirnaty® eta Spikevax®: ez dago ebidentzia nahikoa hepatitis autoimmunea agertzearekin lotura duenik ezartzeko.

Txosten osoa [hemen](#) kontsulta daiteke

[HASIERARA itzuli](#)

4 HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARTZEAK

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA esanguratsuenak :

- Champix® 0,5 eta 1 mg pilulak (bareniklina). Oraindik hornidura-gabezia jarraitzen du. Beste alternatibak erabili (Zyntabac® da finantziazutako beste aukera).
- Cromatonbic ferro®. Laktato II burdin bakarra da. Erabili beste gatz ferroso batzuk (burdin glukonatoa, burdin sulfatoa edo ferrogilizina sulfatoa).
- Bonalfa 4 mcg/g pomada (takalzitola). Beste tratamenduen erabilera baloratu.
- Errupadina 1 mg/ml ahotiko soluzioa. Alternatiba errupadina 10 mg pilulak.
- Salidur 77,6 mg/25mg pilulak (triamterenoa/furosemda). Beste tratamenduen erabilera baloratu.
- Trankimazin retard 1 eta 3 mg (alprazolama). 0,5 eta 2 mg-ko aurkezpenak eskuragarri.
- Zinnat 500 mg zorroak (zefuroxima axetiloa). Alternatiba Zinnat 500 mg pilulak.

HORNIDURA-BERREZARTZEAK:

- Kafinitrina® mihipeko pilulak (kafeina zitratoa/nitroglicerina)
- Cibacen® 10 mg 28 pilula (benazeprilo hidrokloruroa)
- Forxiga® 10 mg 28 pilula (dapagliflozina)
- Pneumovax 23® xiringa aurrekargatua (pneumokoko txertoa)
- Triapin® 5 mg/5 mg 28 liberazio atzeratuko pilulak (felodipino/erramipriloa)
- Viacoram® 7 mg/5 mg 28 pilula (perindopriolo/amlodipino)

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke: [Hornidura gabezien taula](#).

Presbiden, zuzenean taula honetara daraman “Hornidura ezak” botoi berria txertatu da.



CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[HASIERARA itzuli](#)

5 BERRIKUNTZAK PRESBIDEN

- **Alerten eta alergieen modulu berria Osabide Globalen:** maiatzaren erdialdean aktibatu da Osabide Globalen alerten eta alergieen modulu berria.

Egungo sisteman dauden datuak modulu berrira migratuko dira eta abian jartzen diren unetik egongo dira eskuragarri.

Sistema berriarekin kodetu ezin diren alergieak Yin Yang-en sinboloarekin bistaratuko dira. Modulu berriak abisu automatikoak izango ditu printzipio aktibo bati alergia dion pertsona bati medikazioa agintzen zaionean. Horretarako, ezinbestekoa da eguneratzea migratu ezin izan diren alergieak, informazioa alergia-zerbitzuek adierazitako taldeekin bat ez etortzeagatik migratu ezin izan diren horiek.

Modulu hau ezarri ondoren, Osabide Integratiko sarbidea gaitu ahal izango da alergia berriak sartzeko edo lehendik daudenak aldatzeko.

[Alerta eta Alergieen eskuliburua](#)

[Osabide Globalen eskuliburua \(B40\); Alerta eta alergieen modulu berria](#)

- **Berrikuntzak formula magistraletan:**

SYRACERIN®: Syracerin® aurkezpen komertzialaren hornidura berrezarri denez, formula magistral honen preskripzio elektronikoa desaktibatu da:

TAKROLIMUS SUPOSITORIOAK 2 MG: joan den maiatzaren 18az geroztik, ultzeradun proktitis (errektitis) errefraktariorako formula magistral gisa sartu da: takrolimus 2 mg 24 supositorio. Preskripzio elektronikoa baino ez dira onartuko. Banatzeko, aldez aurretik BISA behar da.

Produktuaren kodea	Izena	Oharra	Fakturazio prezioa
140553	Takrolimus 2 mg 24 supositorio	Bisa behar du	34,78 €

Presbiden errezeta elektroniko bidez preskriba daitezkeen formula magistralen zerrenda osoa Osasun Sailaren web-orrian kontsulta daiteke, [hemen](#)

[HASIERARA itzuli](#)

6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- INFAC buletina:** buletinaren ale berria argitaratu da [“Sarnaren tratamendua”](#). Buletin honetan, sarnaren maneia berrikusi da, eta, besteak beste, helduentzako eta haurrentzako, haurdunentzako eta edoskitzaroan daudenentzako tratamendua jaso da. Era berean, [aurkezpen bat](#) ere eskuragarri dago, gaia saioaren batean aztertu nahi izanez gero.
- i-botika fitxa:** maiatzean, herritarrentzako informazioari buruzko fitxa berri bat argitaratu da, [“Kolesterol-maila ez da faktore bakarra”](#). Bertan, azpimarratzen da **garrantzitsua dela** arrisku kardiobaskularreko faktore guztiak **baloratzea**, eta ez kolesterola bakarrik.
- Sendagaiak Zentzuz Erabiltzeko Gomendioak:** Sendagailak Zentzuz Erabiltzeko taldeak [“D Bitamina helduengan”](#) deituriko ohar berria publikatu du. “Sendagaiak Zentzuz erabiltzeko Gomendioak” aldizkako argitalpen bat da, eta haren helburua da osasun-profesionalei berariazko erabilera-gomendioak ematea hobetu beharreko arloak detektatu diren medikamentu-talde jakin batzuetarako. Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalen talde bat arduratzen da horiek lantzeaz.
- SEFAPe egindako infografia berria:** SEFAPe “Paziente eta herritarren” lantaldeak infografia berri bat argitaratu du duela gutxi: [“Ezagutzen al dituzu zure sendagaiak ondo erabiltzeko kontzeptu aurreratuak?”](#) Lantalde honek herritarrentzat egindako beste infografia batzuk kontsulta ditzakezu [hemen](#)
- PPIak luzaroan erabiltzea eta diabetesa izateko arriskua:** kasuen eta kontrolen [biztanleria-azterketa](#) bat argitaratu da, eta, bertan, PPIen erabilera luzearen eta II motako diabetesaren arriskuaren arteko lotura kontsistente eta sendoa erakusten da PPIak 8 astez baino gehiagoz erabiltzen direnean; frogatu da, gainera, %56ra iristen dela 2 urte baino gehiagoz erabiltzen badira. 2010etik 2015era, Italian, PPI batekin tratamendu berria jaso zuen 777.420 pazienteko kohortea erabili da azterketa honetan.

Diabetesa diagnostikatutako 50.535 pertsona kohortetik ausaz hautatutako kontrol kopuru berarekin parekatu ziren, adinaren, sexuaren eta egoera klinikoaren arabera. Epe hauetan, 8 aste eta 6 hilabete artean, 6 hilabete eta 2 urte bitartean eta 2 urte baino gehiagoan, hurrenez hurren, diabetesa agertzeko probabilitate handiagoa ikusi zen (%19, %43 eta %56), PPI 8 aste baino gutxiagoz hartu zuten pazienteekin alderatuta.

Emaizta horiek bat datoz 2021ean Estatu Batuetako osasun-langileen artean egindako 3 kohorte-
iherketen datuekin egindako [analisi](#) batekin. Aldiz, datuak kontraesankorrak dira 2021ean
argitaratutako [metaanalisi](#) batekin, zeinetan HbA1c eta glukemia nabarmen jaitsi baitziren baraurik
egondakoetan, baina ez zen murriztu diabetesaren intzidentzia-arriskua.

[HASIERARA itzuli](#)

7 LMAF ETA MEDIKAZIOA BERRIKUSTEA: ARRISKU HANDIKO MEDIKAMENTUAK

Ahoko antikoagulatzaileak (AKO) arrisku handiko sendagaitzat hartzen dira paziente kronikoetan.
Pertsona baten historia farmakoterapeutikoan AKOa bikoiztea medikazio-akatsa da, eta ondorio larriak
izan ditzake.

2022 urtearen hasieratik aurrera, ESI guztietan Lehen mailako arretako farmazilariak (LMAF) hilero
bidaltzen dizkie preskriptoreei antikoagulatzaile bat baino gehiagoren preskripzio aktiboa duten
pertsonek IKZak, PNT komun bati jarraiki.

ESletako LMAFak identifikatzen ditu medikazio-akats hori duten pertsonak, Presbidera sartzen da
hautemandako sendagaiak eta medikazio-erroreak aktibo jarraitzen dutela egiaztatzeko, azken emate-
datak eta emandako ontziak egiaztatzen dira, eta preskriptorea eta azken preskripzioaren arduraduna
identifikatzen dira.

Errorearen jakinarazpena bidezkoa den ala ez argitzeko beharrezkoa bada bakarrik sartuko da historia
kliniko osora.

Medikazio-erroreak aktibo jarraitzen duela egiaztatu ondoren, posta elektronikoz jarriko da
harremanetan preskriptoreekin, medikazio-akatsa jakinarazteko eta preskriptoreak dagokion
preskripzioa egokitu ahal izateko.

LMAFak okerreko dispensazioak egon direla egiaztatzen badu, honela ziurtatzen da mezua ahalik eta
lasterren iritsiko zaiola LMUko/Zerbitzuko preskripzio-egileari edo arduradunari (administrazio-hitzordua
batekin, telefono-dei batekin edo ESI bakoitzean hitzartutako bidetik), pazienteari komunikatu behar
bazaio, medikazioa modu okerrean emanez diezaigun.

[HASIERARA itzuli](#)

Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen mailako Arretako Farmazialariek egindako hilero buletinetik egokitu da

Lehen mailako Farmazia / Farmacia Atención Primaria
ESI ARABA: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José

